

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Zergak ordaintzeko aldien datak aldatzea. Zatikatzeen epemuga-datak aldatzea**

Martxoaren 18an, Alkatearen dekretu baten bitartez, hainbat zerga eta tasa periodikoren kobrantza-aldia luzatu egin zen, eta horien hasiera- eta bukaera-datak aldatu.

Geroztik, esparru fiskalean eragina duten hainbat arau eman dira, bai Estatuan, bai Arabako Foru Aldundiak.

Bereziki aipatzekoa da "Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 18koa. Onestea premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko" —2020ko martxoaren 20ko ALHAO, 33. zk.—, martxoaren 20ko 3/2020 Foru-arauak berretsia —2020ko martxoaren 27ko ALHAO, 36. zk.—.

2/2020 Dekretuak 2020ko ekainaren 1a ezartzen du zerga-prozedurak hasi edo bukatzeko data orokor gisa.

Horregatik, martxoaren 18ko Alkatearen dekretuan sartutako izaera periodikoko diru-sarrerak ordaintzeko borondatezko aldien hasiera- eta bukaera-datak aldatu beharra dago, eta orobat periodikoak ez diren zerga eta tasak ordaintzeko epea luzatu beharra, eta zatikatzearen inguruko hainbat neurri jaso beharra, aplikazioa argitu eta denok daitezen jakinaren gainean.

Alkate lehendakariak, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrak (25. art.) eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak —Tokiko gobernua modernizatzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatuak— aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, hauxe:

#### EBATZI DU

1. 2020ko kobrantza-aldiaren hasiera- eta bukaera-data berriak ezartzea, zerrendatzen diren zergei dagokienez.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: Ekainaren 25etik irailaren 15era.

Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa: Ekainaren 25etik irailaren 15era.

Industria-isurketen tasa: Ekainaren 2tik abuztuaren 3ra.

Hilerrak zaintzeari dagokion tasa: Ekainaren 2tik abuztuaren 3ra.

Ibilgailuak eraikin partikularretara sartzeari dagokion tasa (pasabideak); lehen seihilekoa: Ekainaren 23tik irailaren 7ra.

Kontsezioak (sei hilean behin ordaintzekoak): Ekainaren 23tik irailaren 7ra.

Kontsezioak (urtean behin ordaintzekoak): Ekainaren 30etik irailaren 10era.

Mahaitxoaren tasa: Irailaren 1etik azaroaren 10era.

Ostalaritza-jarduerei berriro ekiteko dataren inguruan hartzen diren neurriak gorabehera ulertu beharra dago mahaitxoaren tasa ordaintzeko data berria.

2. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eta hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa epeka ordaintzea —ordenantza orokorraren 70.7 artikuluan aurreikusitako aukera— kobrantza-aldi berrira moldatuko da, eta 2020ko ekainaren 1az geroztik ordainduko da lehen kuota.

3. Hilean hileko zerga-sarrearen likidazioak, apirilekoa eta maiatzekoa, ekitaldi honetako ekainera eta uztailean aldatuko dira, hurrenez hurren, eta, horrenbestez, hilabetez atzeratuko da horrez gero egin beharreko likidazioetako bakoitza.

4. Unean unean sortzen diren zergak direla eta egin beharreko likidazio berriak —Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga—, baita periodikoak ez diren tasei dagozkienak ere, 2020ko ekainaren 1az geroztik jaulkiko dira.

5. Jakinarazita dauden izaera periodikoko nahiz ez periodikoko zerga eta tasen likidazioak ordaintzeko epea, epemuga 2020ko martxoaren 14az geroztikoa delarik, 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da.

6. Bi hilabetez atzeratuko dira emanda dauden ohiko zatikatzeen martxoko eta apirileko epemugak, eta maiatzera eta ekainera atzeratuko horien ordainketa, hurrenez hurren, eta orobat atzeratuko dira bi hilabetez gainerako epemugak ere.

7. Ematen diren ohiko zatikatze berrien lehenengo kuotaren ordainketa 2020ko ekainean egingo da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 20an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**